



---

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2022—2024

*Laburpena*

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**b** BERDINTASUNERAKO  
UNITATE  
ADMINISTRATIBOA  
Kulturaren berdintasunerako unitate administratiboa



# Aurkibidea

## Definizioa ..... 03

Zein lege eta planetan oinarritzen da?

## Planaren esparru juridikoa eta teknikoa ..... 04

Nola egituratzen da Plana?

## Gobernu ona eta esku hartzeko ardatzak ..... 05

Gobernu ona.

I. Ardatza: Emakumeen ahalduntzea.

II. Ardatza: Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea, eskubideak bermatzeko.

III. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Nola inplementatu eta garatzen da Plana?

## Kudeaketa-sistema ..... 10


Urteko kudeaketa-planak.

Bultzatzeko eta koordinatzeko egiturak.

Nola ebaluatzen da Berdintasun Plana?

## Jarraipen- eta ebaluazio-sistema ..... 12

# Definizioa



## Zer da?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2022-2024 aldian berdintasunaren arloko jarduera bideratzeko zehaztutako ibilbide-orria da.

Bertan, sailak bere eskumen-eremuan berdintasunaren arloan garatuko dituen helburu estrategikoak zehazten dira: kultura, ondarea, hizkuntza-politika, jarduera fisikoa eta kirola. Plana diseinatu da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen (aurrerantzean, 4/2005 Legea) jarraibideetan oinarrituta.

## Zein da Planaren helburua?

Sailaren administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzea eta gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna lortzen laguntzea, bere eskumen-arloetan: kultura, ondarea, hizkuntza-politika eta jarduera fisikoa eta kirola.

## Zergatik garatu da?

4/2005 Legeak xedatzen duenez, sail bakoitzak bere jarduera-plana egingo du berdintasunaren arloan, Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasun-plan orokorraren gidalerroekin eta esku-hartze ildoekin bat etorritz.

## Nork egin du?

Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitatea (Zerbitzu Zuzendaritza) arduratzen da plana lantzeaz gainerako zuzendaritza eta sailburuordetzekin batera. Inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa ere koordinatzen ditu.

## Aurrekonturik ba al du?

4/2005 Legearen 14. artikulua betez, sailaren berdintasun-plana ezarri ahal izateko, beharrezko baliabideak izan behar ditu. Ildo horretan, baliabide ekonomikoak zehatz-mehatz jasotzen dira urteko berdintasuna kudeatzeko planetan. Aurrekontua honela banatuko da: batetik, Berdintasunerako Administrazio Unitaterako berariazko partida batean, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzea ahalbidetuko duen aurrekontu propio batean.




**Zein lege eta planetan  
oinarritzen da?**

# **Planaren esparru juridikoa eta teknikoa**

**Plana dokumentu hauekin lerrokatuta  
diseinatu da:**

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko 4/2005 Legea.
- Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako Gobernu Programa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.



## Nola egituratu da Plana?

# Gobernu ona eta esku-hartzeko ardatzak


Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana 4 esku-hartze eremutan egituratzen da: **Gobernu Ona** (antolamendu-aldaketarako erronkak eta genero-ikuspegia sailaren administrazio-jardueran txertatzea, zeinetan saileko zuzendaritza guztiek dute eskumena) eta esku-hartzeko ardatz nagusiak (berdintasunaren arloko gizarte-erronkak, non sailak hainbat helburu estrategiko ezarri ditu ardatz bakoitzerako, bere eskumen-eremuarekin bat datozenak).

→ **GOBERNU ONA**

→ **I. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**

→ **II. ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA**

→ **III. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK**



# Gobernu ona

## 1 PROGRAMA

### **Konpromiso politikoa**

- 1.1. Sailaren berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua bideratzen jarraitzea.
- 1.2. Sailean eta sailari atxikitako erakundeetan berdintasunerako plan-gintza eta egiturak sortzea eta indartzea.

## 2 PROGRAMA

### **Berdintasunerako gaikuntza**

- 2.1. Saileko langile guztiak prestatzea, baita kargudunak ere.

## 3 PROGRAMA

### **Genero-ikuspegia lan-prozesuetan**

- 3.1. Sailaren dirulaguntzak, kontratuak eta hitzarmenak genero-ikuspegitik aztertzea, berdintasun-klausulak sartzea eta horien jarraipena egitea.
- 3.2. Genero-ikuspegia txertatzea sailaren arau eta plan guztietan (plan sektorialak eta zeharkakoak).
- 3.3. Genero-ikuspegia txertatzea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrekontuetan.
- 3.4. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- 3.5. Komunikazioan berdintasuna lortzea.

## 4 PROGRAMA


### **Koordinazioa eta lankidetzak**

- 4.1. Emakunderekin batera, berdintasun-politikak eta hizkuntza-normalizazioko politikak indartzen dituzten koordinazio-guneen, ekimenen eta proiektuen kopurua handitzea, bultzatzea eta indartzea.
- 4.2. Genero-ikuspegia eta sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea administrazio-jardueran eta sailaren sektore-politiketan.

## 5 PROGRAMA

### **Parte-hartzea eta eragina**

- 4.3. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea epaimahaie-tan eta erabaki-organoetan.
- 4.4. Parte hartzeko eta kontsultarako guneetan genero-ikuspegia txertatzea.



## I. ARDATZA

# Emakumeen ahalduntzea

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

- 1.1. Euskararen transmisioan eta sustapenean ikasten, erabiltzen eta parte hartzen duten emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea.
- 1.2. Emakumeek eta feminismoak euskarari egiten dizkioten ekarpenak (biziberritzea, erabilera) ezagutzen dituzten herritarren kopurua handitzea
- 1.3. Berdintasun-politiken (feminismoa) eta hizkuntza-politiken (euskalgintza) artean ezagutza eta praktika bateratuak sortzea ahalbidetuko duten esparru teorikoa, diskurtsoa eta eztabaida-foroak eraikitzea.
- 1.4. Sailaren bitartez garatzen diren hizkuntza normalizazio-planetan genero-ikuspegia txertatzea.

### Kultura Sailburuordetza

- 1.5. Sorkuntzaren eta kulturaren azpisektore maskulinizatueta emakumeen presentzia handitzea.
- 1.6. Ereku sortzailean eta kulturean dauden emakume-elkarteen kopurua eta oro har ereku kulturean berdintasunaren alde egiten duten elkarteen kopurua handitzea.
- 1.7. Emakumeek eta feminismoak kulturari eta ondareari egin dizkioten eta gaur egun egiten dizkioten ekarpenak ezagutzen dituzten herritarren kopurua handitzea.
- 1.8. Beren jardueran (hezkuntza-programak eta bisitak, erakusketak, erosketa-protokoloak) genero-ikuspegia txertatzen duten eta erabakiak hartzeko organoetan (patronatuak, batzorde artistikoak) emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua duten museoen eta arte-zentron kopurua handitzea.

### Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera

- 1.9. Kirol-politikan genero-ikuspegia txertatzea eta balioen aldaketa sustatzea.
- 1.10. Euskal kirol-federazioetan emakumeen presentzia handitzen laguntzea (zuzendaritzak, zuzendaritza-batzordeak eta kirol-lizentziak).
- 1.11. Kirol-arloan (teknikariak, kirolariak...) emakumeen eta gizonen behar bereziak ikusarazteko azterlanak egitea.



## II. ARDATZA

# Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

- 2.1. Euskararen normalkuntzan, berariaz edo zeharka, diharduten erakundeetan (publiko zein pribatu), genero-berdintasun planen kopurua handitzea.
- 2.2. Euskara sustatzeko esperientziak eta proiektuak bultzatzea sektore ez-hegemonikoetan (zaintza- eta garbiketa-sektoreetan).


### Kultura Sailburuordetza

- 2.3. Kultura-industrietan berdintasun-plana duten edo berdintasun-kulturaranzko aldaketa-prozesua hasten duten enpresen kopurua handitzea.

### Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera

- 2.4. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta Basquetamek goi-mailako kirolariei, kirolariei, teknikariei eta entrenatzaileei ematen dizkieten zerbitzu eta baliabide guztietan (prestakuntza, bekak, laguntzak) kontziliazio- eta zaintza-beharrak kontuan hartzea.





### III. ARDATZA

## Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

#### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

- 3.1. Eusalgintzan eta euskararen alde lan egiten dutenen enpresetan edota erakundeetan jazarpen sexista eta sexualeren protokoloen kopurua handitzeko sustapen lanak egitea.

#### Kultura Sailburuordetza

- 3.2. Jaialdietan, kultura-industrietan eta kultura-guneetan sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistaren inguruko protokoloen kopurua handitzeko sustapen-lanak egitea.

#### Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera

- 3.3. Sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexista aurre egiteko protokoloa duten kirol-erakundeen eta federazioen kopurua handitzeko sustapen-lanak egitea.
- 3.4. Zure Taldekoak Gara zerbitzua ezagutzen duten pertsonen eta kirol-erakundeen kopurua handitzea.
- 3.5. Kiroleko indarkeria sexistari eta sexualari buruzko ikerketen kopurua handitzea.



**Nola inplementatu eta  
garatzen da Plana?**

# **Kudeaketa sistema**

## **Urteko kudeaketa-planak**

Sailaren Plana garatzeko, sailaren esku-hartze arloei lotutako 4 plan egiten dira:

- Kultura Sailburuordetzaren berdintasuna kudeatzeko urteko plana
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren berdintasuna kudeatzeko urteko plana
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren berdintasunaren urteko kudeaketa-plana
- Zerbitzu Zuzendaritzaren eta Kabinetearen Zuzendaritzaren berdintasuna kudeatzeko urteko plana.

Plan horien helburu nagusia eremu bakoitzean berdintasun-politikak ezartzea da. Plan horietan helburuak, ekintzak, kronograma (hiruhilekoa) eta urteko aurrekontua zehaztuko dira.



## Bultzatzeko eta koordinatzeko egiturak

Saileko Plana eta berdintasuna kudeatzeko planak sailean dauden bi egitura motari esker garatzen dira:

### 1. SUSTAPEN-EGITURAK

#### **SAILEKO BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO UNITATEA**

Planaren betearazpena, jarraipena eta ebaluazioa bultzatzeaz arduratzen da, baita saileko zuzendaritzeari eta langileei planaren betearazpenari buruzko aholkularitza emateaz ere.

### 2. KOORDINAZIO-EGITURAK

#### **TALDE POLITIKOAK ETA BERDINTASUN-TEKNIKARIAK**

Sailean berdintasunaren arloko 8 koordinazio-talde daude: izaera politikoko lau talde (sailburuordeek hartzen dute parte) eta izaera tekniko-politikoko beste lau (zuzendariek eta zerbitziburuek hartzen dute parte).

- Lantalde politikoa + Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko berdintasunerako lantalde teknikoa.
- Lantalde politikoa + berdintasunerako lantalde teknikoa Kulturaren.
- Lantalde politikoa + berdintasunerako lantalde teknikoa Hizkuntza Politikan.
- Lantalde politikoa + berdintasunerako lantalde teknikoa Zerbitzu Zuzendaritzan eta Kabineteko Zuzendaritzan.

Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak eta Berdintasunerako Administrazio Unitateak koordinatzen dituzte talde horiek, eta honako hauek dira haien eginkizun nagusiak:

- Berdintasunerako ekintzak proposatzea, bere eremuko politikari dagokionez.
- Plangintzako berdintasun-ekintzak gauzatzea eta gainbegiratzea.
- Berdintasun-ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.




**Nola ebaluatzen da  
berdintasun-plana?**

# **Jarraipen- eta ebaluazio-sistema**

Lantalde teknikoak eta politikoak urtean hiru aldiz biltzen dira, gutxienez, ekintzen ezarpenaren eta gauzatzearen jarraipena egiteko, urteko ku-deaketa-planen esparruan.

Urtero ebaluazio bat egiten da, Emakundek eskatuta, EAEko botere publikoek Emakundek argitaratu beharreko Berdintasunerako Plana gauzatzeari buruz egindako jarduerari buruzko memoria egiteko.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, sailaren berdintasun-politiken ordezkari gisa, sailaren berdintasun-planaren ezarpenaren eta garapenaren berri emango du, Emakundek koordinatutako eta lehendakaria buru duen Sailarteko Batzordearen esparruan.



2022—2024

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planari buruzko zalantzarik, ekarpenik edo iradokizunik baduzu, jar zaitez harremanetan Berdintasunerako Administrazio Unitatearekin:

→ [kultura-hps-berdintasuna@euskadi.eus](mailto:kultura-hps-berdintasuna@euskadi.eus) → T. 945 016 943